

# Folin markesa eta euskaldunen jatorria

(The Marquis de Folin and the origin of the Basque people)

Altonaga, Kepa\*  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Zientzi Fakultatea  
Zoologia eta Animalia Zelulen Dinamika Saila  
P.K. 644  
48080 Bilbao  
ggpalsuk@g.ehu.es

\* Eusko Ikaskuntza

---

*Folin markesaren (1817-96) lanek aparteko aipamena merezi dute Ozeanografiaren historian, bai eta Euskal Herriko faunari buruzko ikerlanen analetan. Folinek mendebaleko Pirinioetan Cryptazeca monodonta, Elona quimperiana, Trissexodon constrictus eta Laminifera pauli lur-marraskiloak elementu exotikotzat hartu zituen bere lan-hipotesian, bertara Atlantidako biztanleen ondorengoek, hots, euskaldunek ekarriak izan zitezkeelarik. Hau da, haren faunari buruzko usteen arabera, bildutako datuek Europaren eta Ipar Amerikaren artean hondoraturik legokeen lur-zubiaren hipotesia berma zezaketen, eta hortaz euskaldunen Atlantidako jatorria onargarria zitekeen.*

*Giltz-Hitzak: Folin. Marraskiloak. Atlantida. Euskaldunak. Jatorria.*

*Los trabajos del Marqués de Folin (1817-96) merecen mención aparte en la historia de la Oceanografía, así como también en los anales de los estudios de la fauna del País Vasco. De Folin consideró los caracoles terrestres Cryhpezeca monodonta, Elona quimperiana, Trissexodon constrictus y Laminifera pauli como elementos extraños en el Pirineo occidental, que pueden haber sido introducidos allí por los descendientes de los habitantes de la Atlántida, es decir, los Vascos, en su hipótesis de trabajo. Es decir, que en su opinión faunística, los datos recogidos podrían apoyar la hipótesis de un puente terrestre hundido entre Europa y América del Norte, por lo que cabría también admitir la posibilidad de un origen atántido de los vascos.*

*Palabras Clave: Folin. Caracoles. Atlantida. Vascos. Origen.*

*Les travaux du Marquis de Folin (1817-96) méritent une mention à part dans l'histoire de l'Océanographie, ainsi que dans les annales des études de la faune du Pays Basque. De Folin considéra les escargots terrestres Cryptazeca monodonta, Elona quimperiana, Trissexodon constrictus et Laminifera pauli comme des éléments étrangers aux Pyrénées occidentales, qui peuvent avoir été introduits là par les descendants des habitants de l'Atlantide, c'est-à-dire, les Basques, dans leur hypothèse de travail. C'est-à-dire que, dans son opinion sur la faune, les données recueillies pourraient appuyer l'hypothèse d'un pont terrestre enfoui entre l'Europe et l'Amérique du Nord. C'est pourquoi il faudrait également admettre la possibilité d'une origine atlantide des basques.*

*Mots Clés: Folin. Scargots. Atlantide. Basques. Origen.*

## AURKEZPENA

Léopold de Folin markesak (Tournous, Saône-et-Loire, 1817 - Biarritz, 1896) ohorezko tokia merezi du Euskal Herriko faunaren ikerketen historian eta bai itsas biologiarenean eta baita ere, batean zein bestean aitzindari eta dinamizatzaile galanta izan baitzen. Baionara 1868an ailegatu zen, portuko nagusi izendatu zutelarik; bertan ihardun zuen, 1880ean erretiratu arte. Hortik aurrera eta heriotza bitartean Biarritzen bizi izan zen.

Beraren ekimenez gobernu frantsesak *Travailleur* eta *Talisman* ikerketa-untziak atondu zituen, batez ere Bizkaiko Golkoko hegoaldeko ezponda sakonak arakatzeko, lehenengoarekin hiru kanpainatan zehar (1880, 1881 eta 1882), eta bigarrenak beste kanpaina bat 1883an. Hirurehun inguru molusku-espezie berri nominatu eta deskribatu zituen, krustazeo eta foraminiferoak aipatu gabe. Horiez gainera zortzi genero zoologiko berri deskribatu zituen.

*Les Fonds de la Mer* aldizkaria sortu eta kudeatu zuen (1867-87). Ikertzaile eta idazle oparoa, beharbada *Pêches et chasses zoologiques* (1893) da bere libururik globalena, zeren eta bizitzan zehar metatuz joan zen jakintza guztia laburbiltzeaz aparte, naturari buruz zeukan pentsakera agertarazi baitzuen bertan. Bestalde, *Société des Sciences et Arts de Bayonne* elkartearen fundatzaileetarikoa bat izan zen eta bai lehen presidentea ere (1873-78). Halaber, Folin markesak plazaratutako museo ozeanografikoaren ideiak eragin erabakiorra eduki zuen, geroago eratuko zen Biarritzeko *Musée de la Mer* (1935) akuarioaren bidea urratzeko.

Horiek guztiak tarteko, 1894an Pariseko Zientzi Akademiak Delalande-Guérineau saria eman zion Folin markesari bere lanen multzoagatik.

Nolanahi ere, gaur eguneko ikuspegitik nekez uler daiteke, horrelako kurrikulu maratza-  
ren jaubeak zelan har zezakeen, euskaldunentzat Atlantidatiko jatorria defendatzen zuen hipotesiaren aldeko jarrera, eta hori bere ikerketa-esparruko datuez substantziazitu egin gainera. Alegia, Euskal Herriko marraskilo batzuri buruzko datuak erabiliz. Baina, Stephen Jay Gould-ek inoiz ederto azaldu duenez, baldin eta pertsona zentzudunak -Folin markesa gure kasuan- hain ganoso aritzen baziren egungo egunean memelokeriazat jotzen ditugun auzietan, kontua ez da gaien inguruko pertzepzioa distorsionatuta zegoenik jende horiengan, ez; arazoa, inondik ere, euren munduaren gure ulerkera erratutik sortzen da. Ildo horretatik, Folin-en defentsa harrigarri horren gakoa eta azalpena, Antoine Abbadia bera edota bere ingurumaria izan litezke.

## ABIAPUNTUA: FOLIN MARKESAREN LAN-HIPOTESIA

Hemen azalduko dugun gaiarekiko jakingura, Edmund Gittenberger malakologo holandesaren artikuluak arakatzearan sortu zitzaigun. Izan ere, horietarikoa batean (GITTENBERGER, 1983), hain zuzen ere Iberiar Penintsulako marraskilo nimino batzuren ingurukoa, ondoko pasartea aurkitu genuen, marraskilo-espezie konkretu bati buruzko zenbait iruzkinen artean:

*De Folin (1892) considered Cryptazeca monodonta (De Folin & Bérillon, 1877), Elona quimperiana (Férussac, 1821), Trissexodon constrictus (Boubée, 1836), and Laminifera (Neniatlanta) pauli (Mabille, 1865), strange elements in the western Pyrenees, which might have been introduced there by the descendents of the people of Atlantis, i.e. the Basque people in his working hypothesis: (p. 329) "Si en effet les Atlantes ont colonisé les territoires pyrénéens, les Basques descendraient de cette émigration des peuples de l'Atlantide, on expliquerait aisément l'introduction avec eux des mollusques*

*en question, et le continent ayant disparu, l'anéantissement des familles souches s'expliquerait également.*"

Folin markesa zelan iritsi zen lan-hipotesi txirene hori besarkatzera, tartean zenbait marraskilo, euskaldunak eta Atlantida nahasiz?

## FOLIN-EN DATUAK ETA INTERPRETAZIOA

Folin markesaren biografia itsasoarekin estekatuta dago guztiz, alde profesionalen zein zientifikoan (KISCH, 1956; ALTONAGA, 1998). Hala izanik ere, hainbat eta hainbat datu jaso zituen Iparraldeko lehorreko bizidunen inguruan. Batik bat moluskuekin aritu zen, hala lurrekoak nola ur gezetakoak. Espezieen katalogo zehatza egitea zeukan buruan, zeren, bertan aurkitu zuen ingurune-baldintzen aldakortasun lokal nabariak espezie-aniztasuna iradoki baitzion, eta horixe da, hain zuzen ere, egiaztatu egin zuena hein handi batean (ALTONAGA *et al.*, 1994). Bistan da, katalogo xehetua lortzeko ikerketa-guneak ez du zabalegia izan behar, eta Folin-ek Baiona, Maule eta Akizeko arondissementuak aukeratu zituen, eta sakonean arakatu.

Behin datuak eskutan edukita, Folin-ek zenbait berezitasun somatu zituen, harrigarri begitandu zitzaizkionak. Izan ere, lurralde horretako fauna malakologikoaren zerrenda aztertzean, bertako zenbait espezie arront desberdin ziren, Europako espezie arruntekin konparatuz gero. Iparralden, beraz, ba zeuden marraskilo europar tipikoekiko inolako kidetasunik gabeko zenbait espezie, beroriekin batera bizi arren; areago oraindik, "zenbait" horiek, norkulertu, antzeko ezaugarriak zeuzkaten itsasoaz bestaldeko marraskilo batzukaz. Lehen momentuko harridura igarota, atoa datorkio galdera Folin-i: nondik iritsi ote ziren espezie exotiko horiek?

Erantzuten hasi orduko, ikus dezagun lehenago zeintzu ziren hain estonagarri suertatu zitzaizkion marraskilo-espezieak, eta zer dela-eta hori, horrela argiago-edo geratuko baita Folin-ek proposatutako azalpena. Aparteko talde horretako marraskilo-espezieak lau ziren denetara: *Elona quimperiana* (Férussac, 1821), *Trissexodon constrictus* (Boubée, 1836), *Laminifera pauli* (Mabille, 1865) eta *Cryptazeca monodonta* (De Folin & Bérillon, 1877). Izendapen taxonomiko binomialarekin ekarri ditugu hona, eta hemendik aurrera ere horrela erabiliko, ez baitute izen arrunt edo herrikoirik.

*Elona quimperiana* espeziea tamainuz nahikotxo handia da: maskorraren diametroa 30 mm-taraino ailega daiteke erraz; maskor txapalak garapen azkarreko 5-6 bira dauzka eta bai zil zabal eta sakona ere. Folin-en arabera, maskorrak duen forma berebizikoak damaio izakera aparta eta paregabea *Elona quimperianari*: maskorrak zilindro batetan egindako sekzio lodi samarra dirudi, itxura hori, Folin-en aburuan, guztiz arrotz delarik Frantziako marraskiloen artean. Bestalde, eta banaketa biogeografikoari dagokionez, Folin-ek espeziearen banaketa disjuntua aipatu zuen. Batetik, Britainiako Quimper (izen taxonomikoak dinoskunez) hiriko inguruetan soilik, non introdukzio baten ondorioa izan baitzitekeen. Bestetik, Euskal Herrian, Pirinioko isurialde bietan, eta bai Iberiar Penintsulako iparraldeko itsas hegi osoan zehar ere, Galiziaraino. Espeziea ez da ugari, eta soilik bizi da baso ilun-hezeetako (harizti, pagadi eta gaztainadietan) harripe eta horbeletan; halaber, leku fresko eta umeletan agertzen da, esaterako, horma zahar eta erreka eta koba inguruetan.

Folin-en gardiz, *Elona quimperiana* jatorriz ez da Britainiakoa, izenak aipatu bezala (Quimper hango hiri baten izen frantsesa da), eta ez euskalduna ere, nahiz eta, ezer izatekotan eta banaketan oinarrituta, euskalduna dela esan daitekeen. Markesaren ustez, marraskilo

honen antzerakoak Amerikako ekialdean daude, eta bataren eta besteen arteko kidetasunak espezieon sorteri amankomunak azalduko zituzkeen, hots, Atlantidak, berau kontinente bien arteko lokarria izan zen-eta existitu zenean. Edozein kasutan, *Elona quimperiana* via Euskal Herria iritsi bide zen Britainiaraino.

Folin-en eritiz estonagarria suertatu zen bigarren espeziea, gorago esan bezala, *Trissexodon constrictus* izenekoa zen. Marraskilo hau niminoa da tamainuz (7-8 mm-tako diametroa), baina formaz eta bestelako ezaugarriez (mertxika-koloreko maskor erradialki ildaskatua, eta kanporanzko ezpain babesle bi dituen aho estua duena) oso berexa eta apartekoa, "ia anomalia bat fauna frantsesean" Folin-en esanean.

Izan ere, markesak dinoskunez *Trissexodon constrictus* marraskiloaren ezaugarriak hainbesteraino dira "amerikarrak", ezen guztiz zalantzazkoa izan baitzen luzaroan espeziearen benetako estatusa bera. Bai, ze, Behenafarroako Donamartirin ("à Saint-Martin-d'Arberoux -sic- au coeur du pays basque") aurkitutako maskor bi erabili ziren espeziea formalki deskribatzeko 1836an, baina, hurrengo urteetan ez zen berriro inolako alerik topatu. Egia da, urte haietan Euskal Herrian ez zeuden "malacologistes indigènes" ez antzerakorik, eta inguruetakoak ere nekez etorten ziren, eta horrelako baldintzetan zail suertatzen da datu berririk lortzea. Alabaina, espeziearen berezitasunak horren exotikoak izanda, urteak aurrera joan ahala *Trissexodon constrictus* gero eta gehiago mistifikazio modura ulertzen zen: seguruenez, Euskal Herrikotzat aurkeztu zen, izatez amerikarra zena; hortaz, ezinezkoa zatekeen ale berriak aurkitzea bertan. Beraz, espezie honetaz inor arduratzen zenean, bere absentzia egiaztatzeko izaten zen.

Kontuak horrela, Folin-ek Pierre Arthur Morelet bere lagun eta malakologo famatuaren gutun bat jaso zuen, Baionako lanpostura ailegatu zenean, misterio horren gainean aritu eta argitu zezan (FOLIN, 1893). Lehenengo ahaleginek kale egin zuten. Baina, 1872ko egun batez Nansouty jeneralaren laguntzarekin, marraskilo-espezie honetako hainbat ale bildu zituen Ursuia mendian, Kanbo aurrean.

Espezie estrainioen zerrendako hirugarrenera pasatuz, esan dezagun *Laminifera pauli* marraskiloaren tortzel-itxurako maskor lirainak 13-15 mm-tako luzera duela. Espezie honen banaketa-azalera oso murrizta da Euskal Herriko Pirinioko isurialde bietan, baina, aurkitzen deneko tokietan ugari samarra da.

Klausilidoen taldeko marraskiloekin sailkatu ohi da *Laminifera pauli*, baina Folin-ek aztertu zuenean, kidetuago ikusi zuen urokoptidoen familiako Antilletako *Cylindrella* generoko espezieekin. Anatomia ezagutzeke, Folin talde bietako maskor luzeek aurkeztutako antzerako sama ikusgarrietan oinarritu zen, alegia, tronpa moduko horretan. Izan ere, tronpa hori talde honetako marraskilo-espezieen joeratzat azaldu zuen Folin-ek: tronparen luzera gradu desberdinetakoa da, ozta-ozta nabaritzen den horretatik hasi eta maskorraren luzera-erdia hartzen duenerainokoa.

Konturatu ahal izan garenez, nolabaiteko eboluzio-kutsua soma daiteke aurreko pasarteko lerro azpitik, nahiz eta berez Folin ideia "transformisten" aurkakoa izan. Dena den, Euskal Herriko *Laminifera pauli* arrotz begitandu zitzaion Folin-i Europako malakofaunaren baitan. Horren azalpenaren bila joenez gero, lehen hipotesizat bertoko jatorria planteatu zitekeen, Folin-ek berak egin bezala; baina, hipotesi hori bermatzeko, sama luzearen ezaugarri-gradazioaren bat ikusi beharko litzateke inguruotako espezieetan, eta ez zen horrelakorik aurkitu. Lehenengo hipotesi horren ahalmen argigarria eskueran zeuden datuetan ezin oinarrituz, Folin-ek posibletzat jo zuen Amerikako espezieekiko katenmaila galduen existentzia, baina, ez dago esan beharrik, hondoratutako kontinentean. Beraz, Folin-en aburuan posibilitate horren frogapena nekosoagoa zitekeen, baina ez ezinezkoa inondik ere.

Aipaturiko lau marraskilo-espezieetatiko arrotzena, azkenerako utzi dugun *Cryptazeca monodonta* iruditu zitzaion Folin markesari. Txiki-txikia da tamainuz: maskor koniko-obalak 4 mm-tako luzera du, distirant eta beirakara delarik. Aurkitzeko gatxa da ezinago: urte osoan blai dauden goroldioez estaliriko kararritan bizi da; horrela izanik, banaketa biogeografiko erabat murrizta du, soilki dozena-erdi lekunetan agertu delarik.

Marraskilo honen "historia" 1876an hasi zen, Baionako inguruetan, hain zuzen Hiriburuko Bramepan zeritzon etxaldean, maskor huts bat topatu zuenean, udazkenaren bukaeran. Maskorraren berezitasunak nahikoa bereizgarri begitandu zitzaizkion espezie berri bat ezartzeko beste: hurrengo urteko artikulu batetan *Azeca monodonta* deskribatu zuen (FOLIN & BÉRILLON, 1877a). Alabaina, 1877ko ekainean Kanbo inguruetan zebilelarik, zenbait ale aurkitu zituen bizirik Ursuia mendiko magalean, erreka baten troka ilunean. Ale horien azterketa anatomikotik, ondorio nagusi bitara ailegatu zen. Batetik, espezie berriaren anatomia ez zegoen *Azeca* generoari, desberdina baitzen, eta horrela *Cryptazeca monodonta* izenez bataiatu zuen espeziea, non, determinatzaile espezifikoa berdin mantendu arren, generoaren izena aldatu baitzuen. Bigarrenik, espezie berria Madeira irlako marraskilo batzukaz erlazionatuta egon zitekeela ikusi zuen, eta hori anatomiaren datuetan oinarrituta. Horretaz guztiaz aritu zen, 1877ko beste artikulu batean (FOLIN & BÉRILLON, 1877b).

Bestalde, hemen ez gara murgilduko datu anatomikoen sakontasunean, baina bai esango dugu, Folin-en begietan, datu horiek Europako gainontzeko espezieetatik bereiztu egin zutela *Cryptazeca monodonta*, eta ostera, Madeira, Antilla eta Mexiko eta Guatemalako generoekin kidetu. Puntu horretaraino iritsita, Atlantida begitandu zitzaion, Europan parekorik ez zuen marraskilo horren ahaide posibleen jatorri plausiblea: "Baldin eta iberoak eta partikularzkiago euskaldunak atlanteak badira, orduan guztiz erraza da azaltzea, eurokaz batera sorterriko hainbat animalia ailegatuko zirela" zoriz-edo, gaur egun aurkitzen ditugun guneetan aklimatatu zirelarik.

Edozelan izanik ere, Folin-en orduko idazlanetan ez zen Atlantidari buruzko inolako aipamen espliziturik agertu. Horrelako lehenengoak, guk dakigularik behintzat, 1891koak dira, gerora 1892, 1893 eta 1896an errepikatu eta, nolabait, osotu zitularik. Hau da, nahiz eta interpretazio zaileko datu malakologiko horiek hamabost urte lehenagotik ezagutu, Folin markesak ez zuen 90eko hamarkada arte jo Atlantidaren hipotesira. Eta jo zuenean Atlantidaz ez ezik euskaldunen jatorriaz ere baliatu zen Iparraldeko marraskilo arrotzen kidetasun ilunak azaldu aldera.

Horrela delarik, 1896an argitaratu zen, arazo horri buruzko Folin-en idazlanik esplizitue-na, hots, *Atlantes et Basques*. Hamabost orrialdetako lan horretan, erdia inguru Atlantida eta euskaldunen gainekoa da, eta enparaua marraskiloez. Idazki horretan Folin-ek adierazitakoaren arabera, ekialderanzko bidaietan atlanteen itsasuntziek Gibraltarren barrena Mediterraneo zeharkatuko zuten, hainbat kolonia eratuz Afrikako iparraldeko itsasbaterretan eta bai Asiako mendebaldekoetan; antzinako Egiptoko sazerdoteek gorde zuten horren guzti horren gomuta. Ildo horretatik, bidezkotzat jo zuen Folin-ek, quantxeak, feniziarrek eta kartagotarrak atlanteen kolonietatik eratorririko herri gisara onartzea.

Nolanahi, beste arruta diferente bat segituz ailegatu ei ziren atlanteak Piriniotako alde bietaraino eta bertan finkatu, egungo euskaldunak haien ondorengoak liritekeelarik. Baina, Piriniotako magaletara iritsitako atlanteak Atlantidako iparraldekoak bide ziren, eta ostera, Mediterraneoan zehar abiatutakoak, hegoaldekoak. Batzuek eta besteak desberdin samarrak ziren, arrazaz zein izakeraz. Folin-en esanean horrek azalduko luke euskaldunen eta euskararen singularitasun harrigarria. Areago, euskaldunek atlante izaten jarraitzeko borondate irmoa erakutsi dute, edonolako nahasketa ekidin dutelarik. Hortaz, ez dira Asian -irakur bedi

Tubal-engan (adibidez IHARCE DE BIDASSOUET, 1825)- edo feniziarren artean (GARAT, 1869) bilatu behar milaka urtetako antzinatasuna duten euskaldunen jatorria eta ahaideak.

Edozein kasutan, Folin-ek berak dinoskunez horiek guztiak aieru besterik ez dira ("des appréciations"), eta beraz, froga materialen aldeko lekukotasuna behar dute. Zer esanik ez, aztertu ditugun marraskilo arrotzen datu zoologikoak dira, aieru horien aldeko Folin-en argudioak: "eritzi hori bermatzeko guk zenbait arrazoi eman ahal ditugu" dinosku *Pêches et chasses zoologiques* liburuaren 191. orrialdean.

Honaino sujetari buruz Folin-ek adierazitakoa. Ez dakigu zehatz-mehatz noiz hasi zen Atlantida lan-hipotesi modura erabiltzen, eta ez zelan ailegatu zen horretara ere. Folin-ek ez zituen erabilitako iturri bibliografikoak aipatu, baina gauzak adierazteko moduagatik ba dirudi, hala deritzogu, XIX. mende-bukaeran nahikoa arruntak zirela. Zeintzu izan ziren iturri horiek, Folin-en begietan euskaldunen etorki atlantea fidagarri bihurtu zutenak?

## FOLIN-EN INTERPRETAZIOAREN AZALPENA (I): ATLANTIDAREN BENETAKOTASUNA

Irakurleak Atlantida izena edozein entziklopediatan bilatuko balu, seguru egon daiteke, mito edo legenda gisara definituta aurkituko luke; eta bibliotekaren batean liburuaren bila arituko balitz, Dewey sistema hamartarreko 398:2 atalean topatuko lituzke, dragoi, gnomo eta maitagarriei buruzkoekin batera. Beraz, Atlantida lan-hipotesi serio modura ikustean, errefusa izan daiteke lehen erreakzioa. Nolanahi, gaur eguneko zientzilariek ez ohi dute jakiten, Atlantida, mitoaz gainera hipotesi nahikoa hedatua izan zenik biogeografiaren alorrean. Izatez, Atlantida bi daude, bata mitikoa edota alegiazkoa, Platon-ena, eta bestea, 1860 urte-itz aurrera eta batez ere 1915. urte arte nolabaiteko arrakasta ukan zuena, batik bat biologo eta geologo frantses eta britaniarren artean. Bigarren Atlantida horrek benetako izaera zientifikoa zuen: Europa eta Iparramerikako fauna eta flora bizi eta fosiletako hainbat taxon amankomunen sakabanakuntza argituko lukeen zubi interkontinental hipotetikoari zegokion.

Begi bistakoa da horrelako "lur-zubi"en ahalmen explikatiboa, itsasoek aldenduriko animalia edota landare ahaidetuen banaketa geografiko disjuntuak azaldu ahal izateko. Korrante zientifiko hori kasik moda bihurtu zen, eta izan ere, lur-zubien azalpenaren hustirakuntza 1907rako neurri guztietatik gorakoa izan zen, halako moldez non, ordura arte proposaturiko zubi transozeaniko guztiak mapa bakar batean bilduz gero, ozeanoak erabat estalita baileudeke (DE CAMP, 1970).

Zubi interkontinental gisara ulertuta, jakina, eroso izan zen Atlantida, eta eztabaida luzea egon zen hipotesiaren ondarea dela-eta. Adibidez: BABCOCK, 1917; BONNIER, 1908; DONNELLY, 1882; FORREST, 1933; GERMAIN, 1913, 1924; GERMAIN *et al.*, 1923; GREGORY, 1929; HOSPEL, 1939; MATTHEW, 1920; MITCHELL, 1877; MORTILLET, 1897; SCHARFF, 1903, 1909, 1911; SCHUCHERT, 1910, 1917a, 1917b, 1932; SCHULLER, 1917; TERMIER, 1915; VERNEAU, 1898; WILD, 1877; WILLIS, 1932. Aintzat hartuz apurka-apurka komunitate zientifikoan lortu zuen abiada eta indarra, guztiz normala da, Folin, nola edo hala, hipotesi horretan gogaide agertzea, zientzi komunitateko kidea zen bezainbatean. Eta Folin-egaz batera orduko eta osteko beste hainbat malakologo ekar genitzake hona: Bourguignat, Kobelt, Caziot, Germain... (ALTONAGA, 1998).

Esan bezala, Folin-ek ez zuen Atlantidaren hipotesira jo 90eko hamarkada arte: justu urte horietan *revival* ikaragarria bizitzen ari zen Atlantida. Gainera, hein batean kontua Frantzia hasi zen 1869an, Jules Verne-ren *Vingt-mille lieues sous les mers* elaberriarekin batera, berorren narratzaileak eta Nemo kapitainak bisitaldi laburra egin ziotelarik Atlantida

hondoratuari *Nautilus* urpekuntzian. Harrezkero, berrogeita hamar nobela baino gehiago idatzi dira kontinente galduaz, baina gaiaren ospearen erpina mende-goiazen tarte horretan suertatu zen, Donnelly-ren *Atlantis: The Antediluvian World* 1882an argitaratu ostean: gutxienez hamasei nobela agertu ziren 1896-1905 tartean, de Camp-ek dinoskunez. Eta hau guztia, neurri batean behintzat, komunitate zientifikoan jazoten ari zenaren islada dugu. Lotura horren adibide argi bat, Jacint Verdaguer katalandarraren *L'Atlantida* (1878) poema epikoak damaigu: egilearen hainbat oin-oharretan, autore klasikoez gainera geologo, antropologo eta naturalista modernoak agertzen zaizkigu (Buffon, Milne-Edwards, Fritz Müller), eta Azore iriak “zubi handi puskatuaren pilareak” dira.

Hala ere, zenbait autoreren ustez ezinezkoa zen, kasu batzutan behintzat, barreiapen zuzen edo ez-zuzenaz azaltzea planetako puntu desberdin bitan espezie identikoen agerpena; zenbait kasutan, espezie horiek puntu horietako elementu autoktonotzat jo behar dira, ez baitago euren agerpen disjuntu horiek ganoraz azaltzeko bestelako modurik. Esate baterako, MORELETek (1870) Azore irlotako malakofauna aztertu zuen eta bertako marraskilo-espezieen bi bostenak kontinentean ere ba daudela ikusi zuen, artxipelago hau Europatik geografikoki guztiz isolatuta egon arren eta XV. mende arte ez bazen aurkitu ere. Hots, espezie amankomun horiek, Morelet-en ustez, bertakoak ziren batean eta bestean, eta ez nola edo hala batetik bestera barreiatuikoak. Fenomeno horren azalpenik hoberena kreazio anizkuna iruditu zitzaion Morelet-i: naturak behin baino gehiagotan sortarazi ditu espezie batzu, behar-bada beraien iraupena ziurtatu aldera.

Garai horretan biogeografoek sarritan jotzen zuten kreazio anizkunen hipotesira, baina ez soilik animalien banaketa azaltzeko. Adibidez, Philip L. Sclater ornitologo britaniarrak argitaratu zuenez, kreazio-gune bananduen hipotesia onartuz baztertu egin daiteke, gizaki gorria Amerikara Bering itsasarte zeharkatuz iritsi zenaren ideia baldarra, edota Polinesiako zenbatuezineko irlen kolonizazioa kokoen antzera flotatuz ailegatutako bikote errariek burutu zutenaren hipotesi burubakoa. Jakina, esandakoan Louis Agassiz-en ideia kreazionisten oihartzuna dugu, alegia, Adan eta Eba hainbat tokitan sortuko ziren, beste horrenbeste paradisu egonik. Haatik, ezin dugu ahaztu L. Agassiz XIX. mendeko naturalistarik eragin handietarikoa izan zela, eta baita orduko antieboluzionistarik prestigiotsuena ere.

Nolanahi, Atlantidaren inguruko ideiak sinesgarritasun nahikoa eduki behar zuen Folin markesaren begietan, ezpabere bestelako azalpenetara joko zuen-eta; hor ez dago zalantzarik. Horrela izan ezean, Folin-ek ere seguruenez Morelet bere lagunak bezala kreazio anizkunen hipotesia hobatsiko zuen, areago kontuan hartuta, Morelet-ek Atlantidaren hipotesia arbiatu egin zuela, esanez, besteak beste, soilik saloiko naturalistek defenda zezaketela.

## FOLIN-EN INTERPRETAZIOAREN AZALPENA (II): EUSKALDUNEN ATLANTIDA

Desagertutako lurralde horren benetakotasuna onetsita (bide batez esanda, marraskilo arrotzen presentzia argitzeko nahikoa zena), Folin markesak euskaldunen jatorri iluna ere erantsi zuen bere lan-hipotesian. Aipatu beharrekoa da sasoi hartan euskaldunen etorkiari buruzko eztabaida pil-pilean zegoela, eta ez zela horri buruzko azalpen komentzigarririk zirriboratu. Proposatutako ideiei dagokienez, ABARTIAGAK (1895) ondoko laburbiipena damai-gu, seguruenez BLADÉrenetik (1869) hartua: a/ Kaukasoko iberiarrekiko ahaidetasuna; b/ eragin ario edota semitikoa; c/ suomiera eta hizkuntza uraloaltaikoezikiko kidetasuna; d/ tubalismoa (lehen arbasotzat Tubal, hots, Jafet-en seme eta Noe-ren iloba, proposatu zuen hipotesia; baskoiberismoa berorren aldaeratzat jo liteke); e/ Afrikatiko jatorria (berbereengandik, kasu); f/ herri amerikarrekiko estekamendua (eta, hortaz, Atlantida lur-zubiaren nolahalako premia).

Baskoiberismoa mantendu da luzaroan euskara eta euskaldunen jatorriari buruzko teoria nagusi modura, batez ere Humboldt-en itzal luzeari eta Schuchardt-en nazioarteko prestigio handiari esker; bestalde, baskoiberismoaren kritikan gehien nabarmendu zirenak Vinson eta van Eys izan ziren (CARO BAROJA, 1988).

Honaino heldu garelarik, ba dago mahaigaineratu daitekeen beste itaun bat. Marraskilo arrotzen kidetasunak azaltzeko Atlantidako lur-zubia hipotesi onargarri eta nahikoa izanda, eta horrez gainera euskaldunen jatorriaren inguruan baskoiberismoa gailen zebilela, orduan, zelan uler daiteke Folin-en jarrera?

Euskaldunen jatorriari buruzko ideien XIX. mendeko egoera lehen eskuz ezagutzeko, oso lagungarri gertatu da Bladé-ren *Études sur l'origine des basques* liburu benetan interes-garria (1869). Bladé-ren arabera, Bory de Saint-Vincent koronela izan da lehena, arraza atlantiko bat erlazionatu duena Espainiako populaziorik antzinakoekin. Hemeretzigarren mendeko Larousse hiztegi bat kontsultatuko bagenu hainbat argibide aurkituko genituzke autore horretaz. Jean-Baptiste-Georges-Marie Bory de Saint-Vincent (1780-1846) naturalista frantses ospetsua, geografo eta militar gisa nabarmendu zen, hainbat idazlan argitaratu zituelarik, besteak beste, *Essais sur les îles Fortunées et l'antique Atlantide* (1803). Liburu hori iruzkinduz, DE CAMPEK (1970) alde geografikoa nabarmendu zuen. Bory de Saint-Vincent-en Atlantida, de Camp-en arabera, Afrikako mendebaldean kokatua zen, Sahara basamortu aurreko ozeanoan. Afrika eta Atlantida arteko itsasoari Triton Lakua esan zion, bertan gertatu ei zirelarik autore klasikoek argonauten eta amazonen zenbait jazokune. Modu berean, Atlantidako ipar-ekialdeari "Hesperide edo Atlanteen Herria" esan zion (gutxi gorabehera egungo Kanariak daudeneko alde) eta hego-ekialdeari "Gorgonien Herria". Atlantida zibilizazioaren iturburua zela asumitu zuen Bory de Saint-Vincent-ek. Hondorapen bi gertatu ziren. Lehenengoa ekintza bolkanikoen ondorioz hagitu zen, eta Atlantidaren azalera asko murriztu zuen, hainbateraino non, bizirauleak inguruko lurren konkistan aritu baitziren leku bila. Atenastarren kontrako ausiabatza eta gero, kontinentearen gainontzekoa hondoratu zen, hondar modura Kanariak, Madeira eta Azoreak geratu zirelarik. Dirudenez, Bory de Saint-Vincent-ek zenbait ideia J.P. Tournefort botanikari frantsesari hartu zizkion, zeinak, mende bete lehenago iradoki baitzuen, Atlantida Mediterranioko ura Ozeano Atlantiarrean isuri zenean desagertu zela: lurrikara baten ondorioz Mediterranioko itsas maila goratu egin zen, eta urak Gibraltarreko istmoa zulatu zuen, itsasarte modelatuz. Hortaz, atlanteak Afrikako iparralde zeharkatu eta Gibraltarreko "istmo"an barrena Iberiar Penintsulan hedatu ziren, Britainia Handiraino iritsi zirelarik, Galeseraino hain zuzen. Guzti horretarako Bory de Saint-Vincent-ek iturri klasikoetan edan zuen.

Bladé-ren liburuan zalantza barik aipatu da Bory de Saint-Vincent-en lehenetasuna, Atlantida eta euskaldunak (Penintsulako lehen biztanleak hobeto esateko) hipotesi berean sartzeari dagokionez. Hala ere, antzekotasun-puntu gutxi daude, Folin-ek erabilitako hipotesiarekin konparatuz gero. Kontuak horrela, ez dirudi, Folin-en lan-hipotesirako iturri bibliografiko zuzenen artean Bory de Saint-Vincent-en idazlanik egon zenik.

Bestalde, Xahoren *Histoire primitive des euskariens-basques* (1847) liburuak damaiguz argibide batzu euskaldunen etorreraz. Liburu horrek euskaldunen historiari buruzko zertzelada asko dakartza hamahiru kapitulutan zehar, azteko partean Aitorren legenda kantabriarra aurkituko dugularik eranskin gisa. Hamahirugarren kapituluak "euskaldunen egiazko jatorriaz" dihardu.

Hainbat autore klasiko berrikusi eta gero, Xahok jatorriei buruzko kontuak argitzeko zailak direla dinosku, non eta Bibliako Genesisira jotzen ez den. Hortaz, lan nekoso da jatorriak bete-betean ebaztea. Euskararen kasuan, ahaidetasuna hizkuntza indostanikoekin, egiptoera



zaharreakin eta Hegoamerikako zenbait mintzairarekin egon dagoenez, ezin da ziur jakin Sortaldetik ala Sartaldetik zetozen, Afrikako kostaldetik Espainiara pasatu ziren arbasoak. Eztabaidatuezinekoea da Xahoren eritzian, ez zirela ez septentrioiko arraza zurikoak ez beltz afrikarrak. Izan, Indostanetik mendebalerantz hedatu zen arraza batekoak izan zitezkeen, ala, beharbada, Atlantida zaharreko naufragiotik hanka egin zutenak. Bibliaren esanetatik ondorioztatutako Tubal arbasoa ere ba dakar Xahoren aipatutako obrak, baina “erreparo eskrupuloso eta inpartzialtasunik hotzenaz”. Atlantidaren hondorapena onartzen dutenen mesederako luzatu du Xahok mendebaleko jatorriaren posibilitatea; hipotesi horretan argi baieztatuta dago, euskal arrazako herriak Europako hegomendebalean, Afrikako iparraldean eta Indostanen bizi izan direla aspaldirik aspaldienetik.

Beraz, bada, dagoeneko ba dugu bibliografian “Atlantida” eta “euskaldunak” elementu biak batera gardainatu dituen hipotesia-edo, eta gainera Folin-en iturri izateko oportunitate historikoaz apainduta dagoena. Halandaze, litekeena zen Folin-ek Xahoren idazlanak irakurtzea eta estekamendu posible horren ideia zuzenean bertatik hartzea. Paperaren gainean behintzat, Xaho izan zitekeen Folin-en ideia-hornitzailea, nahiz eta Xahoren mito esoteriko-hermetikoaren tonua oso urrun egon Folin markesaren lan-hipotesi zuhurretik. Nolanahi izanik ere, frogatzeke utzi behar dugu iradokizun hau, horretarako erarik ez baita ukagu. Alabaina, ezin gara geratu ditugun susmoak plazaratu barik. Horren aldekoak izan daitezkeen zantzuak dauzkagu, Folin-ek Xahoren idazlanik irakurri gabe ere ideia berari zor izatea proposatzeko.

Lehen konexio posiblea Julien Vinson zen. Berorrek ezagutu eta iruzkindu egin zituen Xahoren idazlan batzu. Eta puntu askotan kritikatu bazituen ere, “serio”tzat zeuzkan. Bestalde, Vinson Baionan bizi izan zen 1866tik aurrera, Garde Général des Forêts bilakatu baitzen, eta *Société des Sciences et Arts de Bayonne*ko fundatzaileetarikoa izan zen, Folin markesa bezala, eta baita idazkaria. Gauzak horrela, ez da handia pentsatzea, Folin eta Vinson elkarren ezagun zirenik, eta Xahoren ideien inguruko hitz-asperturen bat edo beste egingo zutenik. Areago, probablea litzateke Vinson-en eragina izatea, Folin-en baskoiberismoaren errefusa inplizitua.

Antzerako zerbait esan daiteke Wentworth Webster euskaltzalea aipatuz, berori kontaktuan baitzegoen bai Folin-ekin eta bai Abartiagarekin, eta Abartiaga, gesu batean aipatuko denez, jatorri atlantearen aldekoa zen, guztiz. Ez al zuten autua inoiz ikutuko elkarregaz?

Ba dugu hirugarren izen bat. Antoine Abbadia. Aurreko bietan bezala, dauzkagun datuek Abbadia eta Xaho arteko hartu-emanen ziurtatzen dute soilik. Izan ere, URKIZUK (1992) asumitutako estudiante-sasoiko lotura probableaz beste, autore bi horiek 1836an *Études grammaticales sur la langue euskarienne* liburua argitaratu zuten batera. Bestalde, Folin eta Abbadia arteko erlazioari probabletzat deritzogu. Batetik, garaikide eta giro berekoak-edo ziren, XIX. mendearen bukaerako Iparraldeko kostaldean. Bestetik, Folin-en 1893ko liburuan zenbait aipamen laudorizko agertzen dira, itxuraz hurbilekoak, esploradore handia dela-eta. Azkenik, eta batzutan gertatzen diren horrelako txiripa horietariko bati esker, Pariseko Bibliotekatik igorritako fotokopian ikusi egin dugu Folin-ek eskuz dedikaturiko *Atlantes et basques* idazlanaren ale bat bidali ziola euskal mezenasi, ondoko diosalarekin: “A Monsieur A. d’Abadie Membre de l’Institut. Respectueux hommage. M. de F.” Jakin izan genuelarik Patri Urkizu ari zela Abbadiaren gutun-bilduma prestatzen eta aztertzen, berari galdetu genion ea Folin-en eskutitzik agertu ote zitzaion; adeitasun osoz erantzun zigun ezezkoea. Edozelan ere, guztiz interesgarria litzauguke ezagutzea Antoine Abbadiak zer uste zuen Atlantidaren hipotesi gainean, geografoa zen bezainbatean.

Aipatu ditugun hiru konexio hauek ez digute Xahoren ideien komunikazio erreala existitu zenik ziurtatu. Gure ustez bai adierazi dute, oster, ideia hori ba zebilela Folin-en inguruko giroan. Eta ez “ibili” bakarrik, ondoko pasarteotan ikusiko dugunez.

Esan dezagun, 1897an Donibane-Lohizunen “Tradition Basque” sujetaren inguruan nazioarteko kongresu bat antolatu zutela Antoine Abbadiak eta Natalia Serbiako erreginak. Kongresu horretan, GOIHENETXEK (1993) jaso bezala, etnologia, antropologia eta historiari buruzko hamabost komunikazio nagusiek osatu zuten programa orokorra, hiru ataletan banatuta. Alabaina, horien aldamenean kongresistei gogoetarako beste hamabi puntu proposatu zitzairen, hala nola, XV. mendeko euskal bidaiariak, sagarraren kultura eta sagardoaren ekoizpena Euskal Herrian, edota, euskararen alterazioa atzerriko kolonia euskaldunetan. Zernahi gisaz, gogoetarako horietariko seigarren kuestioa ekarri gura dugu hona. Alegia, “De l'origine des Basques. L'Atlantide”. Aipamen horrek argi erakusten du, gure ustez, orduko giroa zela-koa izan zitekeen.

Eta bestalde, Abartiaga ingeniari zibilak euskaldunei eta Atlantidari buruzko zenbait komunikazio bidali zituen hainbat kongresu zientifikotara: *Association Française pour l'Avancement des Sciences* (Bordelen 1895ean), *Sixth International Geographical Congress* (Londresen 1896an), *Congrès International des Études Basques* (Parisen 1900ean). Hau da, gaur eguneko perspektibatik Atlantidarena arbuigarria den arren, orduko zientzia konbentzionalaren esparruan zegoen hipotesi hori, dagoeneko ikusi dugunez, eta izan ere, nazioarteko kongresu zientifikoetan ere eztabaidatzen zen horren gainean. Nolanahi, ezin izan dugu ziurtatu Abartiagak parte hartu zuenentz, 1897an Abbadiak eta Serbiako erreginak antolatutako kongresuan. Halaber, arazo horretan arduratutako pertsona guztiekin elkarte bat eratzea pentsatu zuen. Horretaz guztiaz ikusi ABARTIAGA (1895) eta beronen gaineko iruzkinak: ARANA GOIRI (1897) eta ARZAK (1902).

Azkeneko posibilitate bat aipatu gura dugu, Folin-en azalpenaren deskateatzailea Xaho izan zitekeela iradokitzeko. Élisée Reclus geografo famatuak *Les Basques, un peuple qui s'en va* artikulua argitaratu zuen 1867an *Revue des Deux Mondes* aldizkarian. Artikulu xarmangarri horretan, mundu eruditoak orduan aurkitu berri zuen Euskal Herriaren aurkezpen zabala dugu, baina progresoaren izenean desagertzera kondenatuta ikusteak Élisée Reclus-i damaion penaz kutsatua. Besteak beste, euskaldunen jatorri lanbrotsuari buruz mintzo da, eta erromatarren sasoi aurretik mendebaldeko Mediterraneo inguratzen duten lurraldeetan banatuta zeudela dinosku eta bai bertako irla handietan, Humboldt-i jarraituz. Baina,aldi berean Atlantidatiko jatorri posiblea jasota dago ere artikuluan, eta euskaldunak “Aitorren seme” modura agertzen dira. Orobat, ez dira falta Xahoren obratiko beste “tanta” batzu, Xaho zenaren zintzotasun eredugarria goraiatu zuelarik nabarmenki. Izan ere, azken euskaldunaren titulua Zumalakarregiri kendu eta Xahori pasatu zion Reclus-ek.

GOIHENETXEK (1993) ere azpimarratu du Reclus-en idazlan horren garrantzia. Izan ere, historialari horren eritzian Reclus-ek munta handia eduki zuen euskaldunen irudiaren eraketan orduko mundu zientifikoan: aipatu idazlanak “hondakinezko herri”aren (peuple résiduel) irudia kontsaktatu zuen ofizialki, irudi horrek erro luzeak baitzitu, hondakinezko herri horrentzako “aspaldiko leinuhua” asumitzen zutenak. Nolanahi, horrelako zer-edo-zer nabaritu ahal dugu gaur eguneko zenbait euskaldunen begirada nostalgikoetan, euskaldungoaren urrezko aroa paleolitikoan-edo egon izan balitz bezala. Ikusi, esaterako, IZTUETA (1996).

Ez dakigu Folin-ek aipatu artikulua irakurri ote zuen, geure golkorako baiezkua badugu ere. Horrela izan balitz, Xaho eta Folin arteko lotura bibliografikoa edukiko genuke. Élisée Reclus (1830-1905) geografo anarkistaren idazlanak asko popularizatu ziren orduko jende letratuaren artean, Frantzia bertan eta hortik kanpo, zientzi dibulgatzaile bikaina baitzen, DUNBAREK (1978) dinoenez. Reclus-ek obra oso zabala eta balio literario handikoa osatu zuen. Bere lan nagusia *Nouvelle géographie universelle* da, 19 tomotan (1875-94); lehen eta bigarren tomoetan agertzen dira euskaldunak Espainia eta Frantzia artean banatuta, baina, hemen ez zuen Atlantidatiko jatorriaren aipamenik egin.

Kontuak kontu, frogatze geratu da Folin markesak Xahoren hipotesia ezagutu zuenentz, gure eritzirako guztiz probablea bada ere. Horrela izan ezean, bestelako iturrietara jo behar-ko genuke, Folin-ekiko konexio zailagokoak-edo lirakeenak. Bat aurreratzearen, gorago aipatu dugun DONNELLYren (1882) liburu famatua ekarriko dugu hona. Izan ere, zabalkunde galanta eduki zuen liburu horrek, berrogeita hamargarren ediziora 1949an iritsi zelarik (DE CAMP, 1970). Egileak Atlantidari buruzko hamahiru "tesi" defendatu zituen, ia bostehun orrialdetan zehar. Dena dela, eta gure harira dakargularik, honelaxe dinosku 173. orrialdean: "Atlantida barik, zelan azaldu ahal dugu euskaldunen presentzia European, berauek ez badaukate inongo kidesan linguistikorik kontinenteko gainontzeko arrazekin, baina euron hizkuntza Amerikakoen antzerakoa bada?" Eta itaun honi erantzuna eman guran, aintzinako euskalduntzat zeuzkan iberoak, Atlantida zubian barrena Gades-eraino ailegatu zirela dinosku. Atzera ere, 387. orrialdean ideia berbera darabil, besteak beste Paul Broca antropologo-aren idazlanak aipatuz. Edukiko ote zuen horren berri Folin markesak? Etorria Donnelly-rengandik ailegatuko zitaion?

## BIBLIOGRAFIA

- ABARTIAGUE, W.L. d'. 1895. De l'origine des basques. *Nouvelle Revue*, 15 décembre, 3-23.
1937. L'Atlantide. Essai de bibliographie. *Bulletin Société des Sciences, Lettres & Arts de Bayonne. Nouvelle Série*, 23: 262-273.
- ALTONAGA, K. 1998. *Folin markesa: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan*. 215 pp. Elhuyar. Donostia.
- ALTONAGA, K.; B. GOMEZ; R. MARTIN; C.E. PRIETO; A.I. PUENTE & A. RALLO. 1994. *Estudio faunístico y biogeográfico de los moluscos terrestres del norte de la Península Ibérica*. 505 pp. Premio Xabier Maria de Munibe. Eusko Legebiltzarra. Vitoria-Gasteiz.
- ARANA GOIRI, S. 1897. Del origen de nuestra raza. *Base'rita'ra*, uztaillak 18.
- ARZAC, A. 1902. La Atlántida y el Pueblo Basco. El continente desaparecido. *Euskal-Erria*, 47: 186-189.
- BABCOCK, W.H. 1917. Atlantis and Antillia. *The Geographical Review*, 3: 392-395.
- BLADÉ, J.F. 1869. *Études sur l'origine des basques*. 549 pp. Librairie A. Franck. F. Vieweg propriétaire, 67 rue Richelieu, 67. Paris.
- BONNIER, G. 1908. L'Atlantide et les anciens continents. *Nouvelle Revue*, sér. 3, vol. I: 145-157.
- CARO BAROJA, J. 1988. *Sobre la lengua vasca*. 217 pp. Ed. Txertoa. San Sebastián.
- CHAHO, A. 1847. *Histoire primitive des euskariens-basques, langue, poésie, moeurs et caractère de ce peuple, introduction a son histoire ancienne et moderne*. 171 pp. Chez Mme. Bonzom. Bayonne.
- DE CAMP, L.S. 1970. *Lost Continents. The Atlantis Theme in History, Science, and Literature*. 348 pp. Dover Publications, Inc. New York.
- DONNELLY, I. 1882. *Atlantis: The Antediluvian World*. 490 pp. 22th ed. Harper and Brothers. New York.
- DUNBAR, G.S. 1978. *Élisée Reclus. Historian of Nature*. 193 pp. Archon Books. Hamden, Conn.
- FOLIN, L. 1891. Sur un mollusque nouveau: *Cryptazeca monodonta*, nov. gen. nov. spec. *Le Naturaliste* 2<sup>o</sup> série, 5: 264-267.
1892. Les mollusques spéciaux à la région extrême sud-ouest de la France et l'Atlantide. *Revue des Sciences Naturelles de l'Ouest*, 2(3): 324-329.
1893. *Pêches et Chasses Zoologiques*. 332 pp. J.B. Baillièere et Fils. Paris.

1896. *Atlantes et Basques. Note sur cette race.* 15 pp. A. Lamaignère. Biarritz.
- FOLIN, L. & M. BERILLON. 1877a. Contributions a la Faune Malacologique de la région extrême s.-o. de la France. *Bulletin de la Société Borda, Dax*, 2(1): 199-210.
- 1877b. Contributions a la Faune Malacologique de la région extrême s.-o. de la France. *Bulletin de la Société Borda, Dax*, 2(4): 439-454.
- FORREST, H.E. 1933. *The Atlantean Continent. Its Bearing upon the Great Ice Age and the Distribution of Species.* 345 pp. H.F. & G. Witherby. London.
- GARAT, D.J. 1869. *Origines des basques de France et d'Espagne.* 294 pp. Librairie de L. Hachette & Cie. Paris.
- GERMAIN, L. 1913. Le problème de l'Atlantide et la zoologie. *Annales de Géographie*, 22: 209-226.
1924. L'Atlantide. *Bulletin de la Société Philomathique de Paris*, 13: 5-28.
- GERMAIN, L.; JOUBIN, L. & E. LE DANOIS. 1923. Une esquisse du passé de l'Atlantique-Nord. *La Géographie*, 40: 1-7.
- GITTENBERGER, E. 1983. On Iberian Cochlicopidae and the Genus *Cryptazeca* (Gastropoda, Pulmonata). *Zoologische Mededelingen*, 57 (23): 301-320.
- GOYHENETCHE, J. 1993. *Les basques et leur histoire. Mythes et réalités.* 353 pp. Elkar S.A. Donostia.
- GREGORY, J.W. 1929. The Geological History of the Atlantic Ocean. *Proceedings of the Geological Society*, 85: lxxviii-cxxii.
- HOSPEL, P. 1939. Histoire des idées géographiques relatives à l'Atlantide. *Bulletin de la Société Royale Belge de Géographie*, 30 Sep: 185-215.
- IHARCE DE BIDASSOUET, P. d'. 1825. *Histoire des Cantabres ou des premiers colons de toute l'Europe avec celle des basques, leurs descendants directs, qui existent encore et leur langue asiatique-basque*, I. 403 pp. Chez Jules Didot Ainé. Paris.
- IZTUETA, P. 1996. *Intelligentsia kimatuaren orbekak.* 486 pp. Kutxa Fundazioa. Donostia.
- KISCH, B.S. 1956. Léopold de Folin (1817-1896). *Journal de Conchyliologie*. XCVI, 4: 138-152.
- LAROUSSE, P. 1890?. *Grand Dictionnaire Universel du XIXe siècle.* 17 vol.
- MATTHEW, W.D. 1920. Plato's Atlantis in Palaeogeography. *Proceedings of the National Academy of Sciences of USA*, 6: 17-18.
- MITCHELL, S. 1877. The "Lost Atlantis" and the "Challenger" Soundings. *Nature*, 15: 553-556.
- MORELET, A. 1870. *Notice sur l'Histoire Naturelle des Açores suivie d'une description des mollusques terrestres de cet archipel.* 214 pp + 5 pl. J.B. Ilière et fils. Paris.
- MORTILLET, G. 1897. L'Atlantide. *Bulletin de la Société d'Anthropologie de Paris*. Sec. IV, 8: 447-451.
- RECLUS, É. 1867. Les basques, un peuple qui s'en va. *Revue des Deux Mondes*, 68: 313-340.
- 1882a. *The Earth and its inhabitants, I. Europe. Greece, Turkey in Europe, Rumania, Servia, Montenegro, Italy, Spain and Portugal.* 504 pp. D. Appleton & Co. New York.
- 1882b. *The Earth and its inhabitants, II. Europe. France and Switzerland.* 504 pp. D. Appleton & Co. New York.
- SCHARFF, R.F. 1903. Some Remarks on the Atlantis Problem. *Proceedings of the Royal Irish Academy*, 24 (sect. B): 268-302.
1909. On the Evidences of a Former Land-Bridge between Northern Europe and North America. *Proceedings of the Royal Irish Academy*, 27 (Sect. B): 1-28.

1911. *Distribution and Origin of Life in America*. 490 pp. Constable & Co. London.

SCHUCHERT, C. 1910. Paleogeography of North America. *Bulletin of the Geological Society of America*, 20: 427-606.

1917a. Atlantis and the Permanency of the North Atlantic Ocean Bottom. *Proceedings of the National Academy of Sciences*, 3: 65-72.

1917b. Atlantis, the "Lost" Continent. A Review of Termier's Evidence. *The Geographical Review*, 3: 64-66.

1932. Gondwana Land Bridges. *Bulletin of the Geological Society of America*, 43: 875-916.

SCHULLER, R. 1917. Atlantis, the "Lost" Continent. A Review of Termier's Evidence. *The Geographical Review*, 3: 61-64.

TERMIER, P. 1915. Atlantis. *Annual Report Smithsonian Institution*, 1915: 219-234.

URKIZU, P. 1992. *Agosti Chahoren bizitza eta idazlanak (1811-1858)*. 98 pp. Mikel Zarate Saria 1991. Euskaltzaindia. Bilbao Bizkaia Kutxa.

VERDAGUER, J. 1878. *La Atlántida*. 140 pp. Ed. Planeta. Barcelona. 1992.

VERNEAU, R. 1898. A propos de l'Atlantide. *Bulletin de la Société d'Anthropologie de Paris*, 9(?): 166-171.

WILD, J.J. 1877. Atlantic Soundings. *Nature*, 15: 377-379.

WILLIS, B. 1932. Isthmian Links. *Bulletin of the Geological Society of America*, 43: 917-952.